

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1989ko Otsailak 10, 10. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

## Haratuzteak 89, Arrasaten



*Sehaskatik jausi ote ziren?*

bonbonak, trafiko-seinaleak...

Pertsona heldu gehienok, aldiz, gaua heldu arte ez dugu geure itxura aldatzen; jakina, mundu hau "gau txoriz" beteta dago. Batek baino gehiagok "paisanoz" jantzita ez duena lortzen, mozorrotuta lortuko zuelakoan gaude..., horretarako da egun berezia eta.

*(Barneko horrialdeetan)*

Asteazken goizerarte iraun zuten Haratuzteak. Arrasaten, batzuk larunbatean hasi arren, gehienontzako festa-egun handia asteartea izaten da, eta egun horretarako gordetzen ditugu mozorrak.

Arratsaldean umeen desfilea izan genuen. Ehundaka ume disfrazatu zen, desfile ikaragarria osatuz. Disfrazak inoiz baino orijinalagoak izan ziren, denetarik aurki zitekeelarik: dinastia japoniarrak, butano-

## ORAIN ETA HEMEN

### Lanbide Hastapena

16-20 urtetako gazteentzako ikastaroak Martxoan hasiko dira  
*(6. or.)*

### ERREPORTAIA


**Gero eta kotxe gehiago eta komunikabideak lehenean.** Arrasaten azken urte hauetan, trafiko arazoa larriagotu egin da nabarmenki, ordu ugari karabanetan galtzen ohituak gaudelarik dagoeneko.  
*(10. or)*

### ELKARRIZKETA

Aste honetan **Aizkora** Udal langilerarekin izan gara solasean  
*(17. or)*

### Podiuma

**Enrike Alonso**, Dorleta-Eskolatik irteadako lehen ziklista profesionala, "Zahor" taldean arituko da profesional gisa bere lehen tenporadan  
*(19. or)*



# MUGARRI



Arabako Etorbidea, z/g

Tfnoak: 79 07 44 - 79 07 54

## BEHARREZKO TELEFONOAK

### Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea .....	795300
Igualatorioa .....	790500
Santa Agedako ospitalea (gizonak) .....	793900
(emakumeak) .....	794411
Buru osasunerako zentrua .....	799011

### Gurutze gorria:

Bergara .....	765576
---------------	--------

### DYA

Antzuola .....	766291
----------------	--------

### Anbulatorioak

Arrasate .....	791357
.....	799722
Oñati .....	780852
Eskoriatza .....	798896
Aretxabaleta .....	797458
Aramaio .....	(945) 455116

### Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulanziazak .....	458744
--------------------------------	--------

### Udaltzaingoa:

Oñati .....	780411
Bergara .....	761469
Arrasate .....	791439
Aretxabaleta .....	791052
Eskoriatza .....	790322

### Ertzantza:

Arrasate .....	797199
Bergara .....	

### Suhiltzaileak:

Udal taldea .....	790900
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	792072
Zubillagako Eskualde Parkea .....	782800

### Matxurak:

Urak (udal zerbitzua) .....	790900
Elektrizitatea (Iberduero) .....	790581

### Garraioak:

Taxiak .....	791222
P.E.S.A. ....	791419

### Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza .....	797211
Abaroa jubilatuen egoitza .....	798157

### Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....	798777
---	--------

## 10 OSTIRALA

- **Zinea:** Alai: "Aventuras en la gran ciudad".  
Novedades (Bergara): "Los creyentes" 10,30.
- **Hitzaldia:** 7etan, "Gaztetxea", Monterronen.
- **Goardiako Farmazia:** Corcuera, Elkanon.

## 11 LARUNBATA

- **Zinea:** Alai: "Aventuras en la gran ciudad" 5etan; "Los intocables de Elliot Ness".  
Novedades (Bergara): "Belleza mortal" 5, 7,30, 10,15.
- **Hitzaldia:** goizeko 10etan, UNEDen (Bergara): "Mesianismo judutarra: itxaropena historiaren ilunabarrean".
- **Mus-Txapelketa:** 4,30etan AEDn, inskripzioak, bertan.
- **Pailazoak:** 6etan Amayan, "Takolo, Pirrux eta Porrotx".
- **Jaialdia:** 11etan, Aretxabaletako Kirol-Etxean, "Pantxoa eta Peio". Sarrera: 300 pta. Antolatzailerak: Beinke.
- **Goardiako Farmazia:** J. A. Irizar, Erguin.

## 12 IGANDEA

- **Zinea:** Alai: "Aventuras en la gran ciudad" 5etan; "Los intocables de Elliot Ness".  
Novedades (Bergara): "Los creyentes" 5, 7,30, 10,15.
- **Goardiako farmazia:** I. Amezua, Santamaina.

## 13 ASTELEHENA

- **Zinea:** Alai: "Los intocables de Elliot Ness".  
Novedades (Bergara): "Los creyentes" 7,30.
- **Goardiako farmazia:** Aurora Ruiz, Maalako Errabala.

## 14 ASTEARTEA

- **Zinea:** Alai: "Los intocables de Elliot Ness".
- **Hitzaldia:** gurasoei zuzenduta: "Errespetoa, disziplina, zigorra, autoritatea...zer?" (Iñaki Osoro) 3,30etan AEDn.
- **Hitzaldia:** "ETA eta Gobernua-ren arteko tregua eta negoziazioa" (E. Lopez Adan, "Beltza"), Monterronen, 7,30etan AEDk antolatuta.
- **Txotxongiloa:** "Izuikara haripean" Taun-Taun Taldeak, UNEDen 7,15etan.
- **Goardiako Farmazia:** A. M. Morales, San Andres.

## 15 ASTEAZKENA

- **Goardiako Farmazia:** Ruiz Torres, Ferrerías.

## 16 OSTEGUNA

- **Mintegia:** "Baloreen aldaketa", lehenengo saioa, AEDn, 7etan.
- **Zine Klub:** Amayan, 8,30etan: "La caída de los dioses". Zuzendaria: Luchino Visconti.
- **Goardiako farmazia:** Español, Iturriotz.

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI  
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

**Argitaratzailea:**

Arrasate Press taldea (AED)  
Zeharkale Estalia, 1-1. B  
20500-ARRASATE -TF.797164

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala

**Zuzendaria:** Joxe Aranzabal

**Erredakzioa:** Juan Luis Azkarate  
Bego Zubia

**Publizitatea:** Amaia Garro

**Maketazioa:** Goio Arana

**Erredakzio  
-kontseilua:** Jose Felix Diaz  
de Tuesta  
Harry Zaraia  
Iñaki Mendiguren

**Kolaboratzaileak:** Josemari Velez  
de Mendizabal  
Mikel Irizar  
Karmele Zuazubiskar  
Patxi Montero  
Juan Martin Elexpuru  
Mikel Arregi  
Eukeni Olabarrieta  
Arantxa Lizaso  
Gerardo Markuleta  
Estepan Plazaola

**Inprimategia:** Gertu Koop. E.

**Banaketa:** Orkatz Skaut-Taldea


**Harpidetzak:** Zeharkale Estalia, 1-  
1b. Tfnoa. 797164

**Copyright:** ARRASATE PRESS

**Lege-Gordailua:** 1124/88

**ISSN:** 0214-4654

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain  
hartzten aldizkarian adierazitako esanen  
eta eritzien erantzunkizunik.



## Galduz gero ikasten omen da

Euzkadi europar norgehiagoketa galtzen ari da. Eta Pirineoetako bi magaletan kokatuta gauden arren, ezin daiteke esan horrek abantailarik suposatu duenik. Alderantziz, azken egun hauetan guregaino iristen ari diren albisteek euskaldunak behin eta berriz garaituta geratzen ari garela erakusten digute... Zein den arrazoia? Ba, agian, guk euskaldunok Pirineoetako muga ontzat ez hartzea izango litzateke. Galdu egingo dugu arrantza kuotetan. Galdu egin genuen nekazaritzan. Galdu egingo dugu trenbideetako berzuzenketan. Eta zerrendak ez du, oraindik, bukaerarik ikusten.

Azkena, Aragoiko Sonportetik errepide nagusi berria egitea dugu. Beraz, agur esan diezaiokegu Irun-Hendaia igarogunetik ezer lortzeko itxaropenari. Irabazi digute, baita oraingoan ere.

1983an hasi ziren, oker ez banago, Europako Kontseiluaren babesean sorturiko Pirineoetako Lan-Komunitatearen bilerak. Era-kunde horrek, alde bateko nahiz besteko komunitate eta herrialdeak elkartzen ditu, arautegiak dioenez, partaideen era guztietako interesak defendatzeko. 1983 eta 1984ean zehar hiru bider hartu nuen parte erakundearen batzarretan; lehena Katalunian eta beste biak Paben. Eta hirugarrena amaitu bezain laster bil-

kura haietara ez nintzatela berriz igor eskatu behar izan nuen. Hain nazkatuta nengoen!

Madril eta Pariseko agintariak inposatuta, Lan-Komunitatearen lehendakaritza Pabeko alkateak eta Aragoiko Diputatu Nagusia zen Marracco jaunak zuten. Biak hari berekoak, noski. Eta biak, gauza bakar batez itsututa: Somportetik igaro beharreko errepideaz. Gainerako gaiak zokoratuta geratzen ziren lanegun luze haietan eta inork gai-zerrendan agertzen ez zen zerbait ikutu nahi bazuen... bilerako lehendakariak hitza kenduko zion. Zer esanik ez, gai-zerrenda bi lehendakariak gertatzen zuten.

Ez naiz, beraz, batere harritu albistea irakurri dudanean. Marracco jaunak (haserretu egin zitzaidan behin, geure hizkuntzaren aldeko ekintza batean euskaraz aritu nintzelako) diputatu nagusi izateari utzi egin behar izan zion. Baina haren gidariak darraite Madrilen. Eta horiek ez omen dirudite gau bakarrek tximeletak.

Europar ardatzak ere eskui-neruntz egin du, guregandik fisikoki aldenduz. Garbi dago; irtenbidea ez datza gure arteko zatiketari. Beste inork ez gaitu gauden zuloatik aterako; beraz, guri dagokigu Herri honen garapenerako ardura. Euro-parrak, euskaldun garelako.

*Josemari Velez de Mendizabal*



# CHASYR 1879 ASEGURUAK

**GASTEIZ**

M. Iradier 15. 233003  
Ordezkaritza

**ARRASATE**

E. Gerrikabeitia 79 74 35  
Andoni Conde. 79 60 08

**EIBAR**

I. Gerrikabeitia 71 21 39  
Isasi 17, 1., esk.



**ARRATE IRRATIA, S.A.**  
FM - 101,5

Goizeko 9etatik  
Gauko 11ak arte  
Irratsaio denak EUSKARAZ

ARRATE IRRATIA  
EUSKAL SINTONIA

**GIROA  
AROTZA**

**ZABALDU BERRIA  
DUGU !!**

Iturriotz, 14 ARRASATE



**gili gili**

Iturriotz, 9 Tfnoa: 799457

**ALASA**  
ASEGURUAK

Zeuren ezertara behartu gabe, aseguru mota guztien informazioa emango dizugu, zure beharretarako egokiena zein den adieraziz.

- \* Etxeko Arrisku Orotarakoa
- \* Auzo-Komunitateko Arrisku Orotarakoa
- \* Saltokietako Arrisku Orotarakoa
- \* Enpresa Txiki eta Erdi mailatakoa
- \* Pentsio-Fondoak
- \* Jubilazio-Planak
- \* Istripuak
- \* Bizia
- \* Automobilak
- \* Erantzukizun Zibila
- ... etab

**ZURE ESANETARA GAUZKAZU!!**

Maalako Errabala, 33-Beheazpia  
Tfnoa. 796900

ARRASATE

## Paseatzeko espaloirik ere behar da

Astekari horren bidez gogoratu nahi neukio geure Udaletxeari ia noiz egiteko asmotan den Arrasatek Atxabalpera edo, hobeto esanda, Gesalibarrerainoko galtzada edo espaloia. Aspaldi uste dot hasita edo eginik egon bihar euala, zergaitik uste dot oso premiazkoa dela espaloi hori. Jadanik nahikoa urtetan Gesalibarreko gaisoak, aparteko moduz, eta gainerakoak be bai kamino hortan geure bizia jokatzin dugu, joan-etorri bat egiterakoan. Orain 4 edo 5 urte dala neuk irakurritakoa da egunkari batian hoge millo ekozala espaloi hori egiteko eta, itxura denez, eleziño bezperak izango ziran.

Zenbat holako sartzen guzkuen guri, ze hor ez da ezer egin eta dakidala egiteko itxurarik be ez dot ikusten. Gaur egun esaten da, eta egia da oinez gutxiegi ibiltin garella eta kotxez gehiegi, ba nik sarritan pentsatzen dot espaloi hori egin balego jende askoz gehiago ibiliko litzatekeela, Aretxabaletaruntz ere hondatua dago ta bidea, eta ez dago herrian ibilbide ganorazkorik. Ardu-ra daukotzuenok hartu kontuan zenbat jende ibiltzen dan Ulgor atzetik Mekaraino, eta laster horraino be ezin izango dute edo dugu ibili, bariantea irekitzen danian ia nor ibiltzen dan hortik, hortik pasatzean zarata besterik ez da izango eta, gainera Lana inguru eta Ulgor atzean trafiko gehiago ibiliko da eta ez da egongo girorik paseatzeko. Orduan, jende hori be beste alde batera joan beharko da. Baita fubolera joaten diren batzuk be joango litzakez oinez, nahiz kotxez itzuli edo nork daki oinez be. Orduan, arrazoi haiegaitik eta beste puntu batzuk isten dituztelako ardura daukazutenoi ia hartzen dezuten arretaz eta espaloi hori ekusten

degun hemendik aurrera eginik Arrasate eta inguruko guztientzako pozgarria eta atsegina izango litzatekeelako. Ia mutilak, ia noiz egi bihurtzen dan.

Agur

*Bittor Bergaretxe*

## Alfabetatu nahia

Idazki honen bidez "Arrasate Press"era zuzentzen naiz, alde batetik, astekari hau aurrera ateratzeko lana egin duzenoi neure esker ona adierazteko, eta bestetik herriko gorabehera guztiak ezagutzeaz gain geure eritziak eta kezak azaltzeko aukera ematen diguzuelako eta, noški, euskaraz irakurtzeko medio atsegin bat delako. Benetan, eskerrak.

Beraz, aukera hau aprobetxatuz, ondorengo arazo hau azaldu nahi dut:

Administraritzan lan eginez, azkenengo urteotan saiatu naiz euskaraz alfabetatzen, baina neure lanpostuari erantzun egoki bat emateko beste mota bateko euskarazko klase batzuen atzetik ibili izan naiz (idazkiak egiten ohitura hartu, itzulpenak, etab.), baina alferrekoa izan da; itxura denez, klase hauek antolatzea ez da posible izan Arrasaten.


Nik uste dut Arrasaten nahiko pertsona egongo garella (lantegietan, ikastetxeetan, Udaletxean...) klase hauek antolatuko balira gogo haundiz hartuko genituzkeenak eta egarri hau duenari ezin zaio ukatu, eta aukera bat ematea uste dut merezi dugula.

Horrexegatik, Arrasateko Euskaltegiei eta AEDri dei egiten diet, ea euskaraz trebatzeko gogo dugunoi erantzuna ematen diguten.

Mila esker

A.G.

# Arrasaten ba al dago Gaztetxe baten beharra? Zertarako?



**Aitor Zubiaga**  
(Langilea)

— Bai, Gaztetxe ireki bat, jendea gustora egongo den leku bat. Tailerrak, teatroak, etab. gazteek aurrera eraman ditzaten balioko duen leku bat.



**Sagrario Lopez**  
(Tabernaria)

— Bai, gazteriek gizarte honetan ez du lekurik egiten duenari sentidua emateko. Gaztetxeak aktibitate ezberdinak aurrera eraman ahal izateko leku bat behar luke izan, gazteek duten energia positiboa bideratzeko eta era berean energia negatiboa deskargatzeko. Beraiek jestionatutako elkartzetxe leku bat, beraiek jarritako arauekin funtzionatuko lukeena.



**Teresa Aranguren**  
(Etxekoandrea)

— Bai, baina orain dagoena bezalakoa ez. Gauza positiboak eta lanak egiteko beraiek organizatutako toki bat.



**Karlos Arizabaleta**  
(Langilea)

— Beno, Gaztetxe edo gazteendako lokal bat behar da, gazteek nahi dituzten ekintzak organizatu ahal izateko.

Haurtxoa



Arrasate Pasealekua, 4  
79 14 90 ARRASATE

**berango**  
aroztegia

Arotzeria orokorra  
sukaldeko altzariak  
kanpo eta barruko atea

Legarreko pabiloi industrial  
(Behea) Tfnoa: 79 01 92  
ARRASATE

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

**A.ZANGITU**

Tfnoa: 799182 ARRASATE  
Tfnoa: 761954 BERGARA

## OÑATIKO UDALA

Euskara- Dinamitzaille posturako eta urtebeteko kontratuaz, lehiaketa bidez langile bat kontratatzeko deialdia.

Azterketa eguna:

Otsailak 14, goizeko 10etan Kultur Etxean.

Izena emateko azken eguna:

Otsailak 13, eguerdiko ordubetetan.

Izen-emateko eta baldintza-orriak jasotzeko:

Udal Bulegotan, 11etatik ordubietara.

**Obea**

**Ate automatikoen  
ezarpena  
Konponketak  
Berriztapenak**

**Galdetu prezioak**

**IGONGAILUEN  
MANTENIMENDUA**

Jose Luis Iñarra, 22-behea  
Tfnoa: 79 12 08

## Lanbide-Hastapena, 16-20 urtetako gaz- teentzako ikastaroak

Martxotik aurrera Deba Garaian "Lanbide-Hastapenaren Programa-keta" barruan pintura (Eskoriatzan), eskaiola eta isolamenduak (Arrasaten) eta egurraren berriztapena eta igeltseritza (Bergaran) ikastaroak izango dira.

Ikastaro hauetan ohizko eskolatan irakasten ez diren lanbideak irakatsiko dira. Aspektu teknikoaz gain, kirol eta kultur arloek ere izango dute kabida. Tailer bakoitzean, bestalde, 20 ikasle izango dira (guztira, 80 bat lagun).

Ikastaro bakoitzak urtebete iraungo du, astero 30 ordu emango dira (egunero 8-2etara), denbora



Erika eta Juanjo, monitoreak

horrela banaturik egongo delarik: profesioaren arlo tekniko-praktikoa, 20 ordu; arlo sozio-labora, 6 ordu; eta kultur eta kirol arloa, 4 ordu.

Irakaskuntza "erreglatu gabekoa" izango da: azterketarik gabekoa eta lekuari moldatua, alegia.

Gastuak Deba Garaiko Udal Elkartearen eta Eusko Jaurlaritzaren kontura doaz, aurrekontua 25.000.000 miloikakoa izanik. Gaz-

teentzako, bai ikastaroa, bai trans-  
portea debaldekoa izango dira.

Programaketa hauen helburua ez da langabeziaren arazoa konpon-  
tzea, antolatzaileek ikastaroaren  
alde edukatiboa azpimarratzen dute-  
larik.

Behin ikastaroa bukatuta, muti-  
lek zein neskek, honako irtenbide  
hauek izango dute:

- txandaketako praktikazko  
kontratoa,
- eskola-tailerrak, edo
- autoenplegua.

Ikastaroa bukatu ondoren, moni-  
toreek gaztearen traiektoia jarraitu-  
ko dute.


Apuntatzeko Udaletako enplegu-  
dinamizatzaileengana jo behar da,  
epea hilaren 15ean bukatzen delarik.  
Jadanik 50 bat lagun apuntatu dira.

## Zaldibarri buruzko mahaingurua

Asteazkenean, hilak 1, "Arrasate Euskal Dezagun" Elkarteak antolatuta, Monterronen Zaldibarko frontoiari buruzko mahaingurua izan zen.

Sei izan ziren mahaia osatu zuten pertsonak: Udaleko Hirigintzako zinegotzia den Jose Mari Usatorre, Pilota Eskolako bi ordezkari -Juan Osinaga eta Peio Lizarralde- eta Zaldibarren aurkako Koordinadorako bi partaide, Igone Galarra eta Andoni Lopez de Munnain, hain zuzen.

Hasieratik, nahiz eta ofiziala ez izan, Zaldibar ia seguru ez dela estaliko esan zen. Ondorioz, debateak bere interesa galdu zuen. Gainera, partaide guztiak eta aretoa betetzen zuen publikoa estaltzearen kontra



Aretoa publikoa betetik zegoen

agertu ziren.

Pilota Eskolakoek, Zaldibar ez bada estaltzen, beste proiektuari noiz ekingo zaion kezka azaldu zuten.

Azkenean, debatea kirol politika municipalari buruzkoa bihurtu zen.



# VIGURI, S. A.

## T.B - BIDEO - Hi-Fi

Merkatuko markarik inportanteenak eta azkeneko berrikuntza teknologikoak.


**INTERESIK KOBRATU GABE FINANTZIATZEN  
DITUGU ZURE EROSKETAK!!**

**VIGURI,** gertuago zeure zerbitzura.

Iturriotz, 33

Zerkaosteta, 24

Tfnoa: 798565



# ZENBAKI

Gaiak: Kontabilitatea  
Fiskalitatea  
Lana  
Zuzenbidea  
Juridikoa  
Finantzaketa  
Aseguruak

BASABE INDUSTRIALDEA  
ARETXABALETA (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 79 88 75  
79 75 99



*Kongre-  
soa Monte-  
rronen burutu  
zen eta afilia-  
tu ugari hur-  
bildu zen ber-  
tara*

## ELAko Kongresua

Joan den astean ELAk bere aurtengo Kongresua egin zuen. Honako gai hauek, besteak beste, tratatu ziren bertan:

- ELAko afiliatuen kopurua %4a igo da 1988an Arrasaten. Hala ere, sindikatuak duen gaztetu-beharra azpimarratu zen.
- Deba-Eskualdeko Ospitalaren egoera ikusita, Arrasatek Ospital berri baten beharra du.
- Union Cerrajerako 55 urte baino zaharragoen egoera konpontzeke dago.
- Gobernuak daraman politikarekin, ELAkoen ustetan, langabezia ez da konponduko.

## Iturripe dantzan oraindik

Aurrera segitzen dute Arrasateko Udala eta Gizabide Fundazioaren arteko elkarrizketek, Iturripeko kirol-instalazioak Udalaren eskuetara pasa daitezzen. Azken Gobernu Batzordean ez zen ezer erabaki, nahiz eta zenbait aurrerapausu eman.

Dirudien ez eremu batzuei dago kienez "manupeaz" hitz egiten den bitartean, beste batzuetan "erabilpena" utziko litzaioke Udalari, azken kasu honetan 40 urtetarako.



*Iturripe zahartzen ari da*

## Udal Euskaltegi berria Arrasaten?

Azken ikasturteetan lekuz hain txarto ibili eta gero, badirudi aurten hurbilago ikusten dela euskaltegi berri baten posibilitatea. Dagoeneko 25 milioi pezeta onartu dira Euskara Batzordean helburu horretarako. Orain ikusi egin behar da alderdi guztiak ados jartzen diren. Ospitale zaharra eta oraingo Udaletxe berria aipatu dira, besteak beste, euskaltegi berriaren kokaleku posibletzat.

## 89ko aurrekontuak aurrera

Hazienda Batzordea jo eta ke ari da aurtengo aurrekontuak tajutzeko lanetan. Oraingo ez er garbirik ez badago ere, datorren asterako Hazienda eta Gobernu Batzordeen bilerara deitu da, lanak aurreratzeko asmoz. Beste gai batzuren artean, Zaldirabar pelotalekuaren kokapena eta Garibai etxearen berritzea tratatuko ei dira.

## Udalpe elkarteak

Aurtengo Batzar orokorra dela eta, Udalpe elkarteak meza bat antolatu dute Arrasateko parrokiaren hildako bazkideen alde. Meza goizeko hamaiketean izango da. Hildakoak hauek dira: Oscar Unanue, Jose Ramon Bolinaga "Txori", Jose Mari Lete, Paco Arriaran, Pedro Uranga, Donato Jauregi, Pedro Maria Arregi eta Jose Mari Arrazola.

**LASAGABASTER**

**JANTZIDENDA**

**Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena**

Garibai, 9 Tfnoa: 798997

ARRASATE

## laburrak

### □ Udalak Amaya eskuratu

Azkenengo Plenoan aho batez onartu zen Udalak Amaya antzokia eskuratzeko trukearen formula aurrera eramatea. Truke honen ondorioz, orain arte lokalaren jabegoa zuen inbiliarriak lurralde municipal batzuk eskuratuko ditu (erdigune eta Musakolako batzuk, hain zuzen ere).

Udalak baldintza bat jarri dio inbiliarriari: lurralde horietan apartakalekuak eraiki beharko ditu derri gorrez.

### □ Basotxo

Igandean Aretxabaletako "Basotxo" Jubilatuen etxe berria inauguratu zen.

Obrak 29 milioi pta. kostatu dira, hauetatik %75a Gipuzkoako Foru Aldundiak subentzionatu duelarik.

### □ Buelbaka Gaztetzearekin

Hurrengo ostegunean, hilak 16, Gazteri Batzordeak Gaztetzearen etorkizunaren gaia tratatuko du. Debatean, batzordekideez gain, alderdi guztien beste ordezkari batek hartuko du parte.

HBren proiektuan gaztetzeara kokatzeko lokal bat uztea eta honen funtzionamendurako arauak ezartzea proposatzen da.

PNVk, berriz, gaztetzeara baino lehenago, gazteriarentzako erakunde bat sortu beharra ikusten du. Eta EA, azkenik, Kultur Etxe zabal bat sortzearen aldekoa agertzen da.

Bestalde, Gaztetzeko fluxu elektrikoa 6 Kwko energia-indarrarekin berripiniko da. "La Polla Records"en kontzertua kiroldegian egingo da, ekitaldi honetarako 75.000 pta.tako subentzioa (lokalaren alkilerra) onartu delarik.

## T x a n d a k a

### Karnabaletan ere laletxe gara

Aretxabaletan ihauteriak indartzen ari direla dio jendeak. Beharbada, orokorrean gure herrietan eta mundu libre zibilizatuan (pobreek eta gorriek zer egiten duten, auskalo) indartzen ari direlako ari dira indartzen Aretxabaletan ere, edo aldrebes igual. Kontua da haratuzteak gero eta jende gehiagok ospatzen dituela, nahiz eta haragi-uzteak gero eta gutxiagok egin, Aretxabaletan.

Hainbat Udaletxetako zinegotzi jaunak karnabal jai-ereduak inbentatu ezinean dabilzan honetan, gure herrian bada berez-edo omen dagoen dantza berezi bat. Karnabal igande goizean herriko mutil gazte koadrila bat ibiltzen da kale nagusian Txino Dantza eginez, edo saiatuz. Gazte hauek zakur jantzita, zarpail eta aurpegia beltzez zikinduta dutela doaz bi lerrotan, zentzu haundirik gabeko kanta bat kantatuz eta mugimendu berezi batzu eginez. Etnologian aditu batek dantza obszenoen multzoan sailkatuko luke. Txino dantzaren jatorria aspalditik dator batzuren ustez, ikazkinak ihauteritan herrira jeitsi eta emakume falta salatzeke dantza egiten zuteneko garaietatik. Herrikoak, batez ere antzestraltasuna zahartasunarekin identifikatzen dutenak, jarriagoak dira jatorri aintzinako eta lokalean sinisterra. Kanpotar batek, dantza honek doinuan eta egiturari hainbat herritan egiten den Sorgin Dantzarekin parekotasun susmagarriak dituela esan zigun behin.



Jon Sarasua\*

Baina zer, ez da hori bakarrik ihauteri igandez Aretxabaletan (eta usadioz, ez pentsa) egiten dena. Kontu hau, herri askotan egiten den Santa-Ageda eskeko ohitura eta kintoak biltzearen ohituraren nahaspila da, plazan dantza-

soka egiteko ohituraz orraztua. Asunto guzti honetan emakumezkoek jokatzen duten papera pasibo samarra da; dantza-sokan mutilek ateratzen dituzte eta gero txokolatadara inbitatzen, bestalde plazan dantzak ikustean txalo egiteko aukera ere badute. Bueno, Txino dantza ere mutilek bakarrik egiten dute, ez nintzen konturatu. Badakit zer pentsa litekeen, baina usadioak ez dira nolnahi aldatzen ibiltzekoak.

Hau dena gutxi balitz, gainera orain Txinoaren Entierroa izeneko ideia berri eta izugarri orijinala asmatu dute, kompletatzeko. Ez da usadioa, baina Aretxabaletako Udal Txit Gorenak usadio berri baten bultzatzailetzat oroitua izatea lortuko du seguruenik. Horrela, hainbeste ekitaldi bereziren artean jendea gero eta gehiago mozarrotzen da Aretxabaletan. Jakintsuak esanda, mozarrotzea errutina hautsiz gure izaera adierazteko bide ezinobea dela uste dugu eta gainera horrela beste urte guztian betiko formak gordetzen jarraitzeko indarra ematen digu.

(\* ) Bertsolaria

## A. B E N G O A

Eraikuntzak eta berriztapenak  
Hormigoizko lanak  
Teilatuetarako  
Fatxada garbiketak

Arkarazo Auzoa Tfnoa: 79 21 76 Aretxabaleta

## URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE



**Zumaiako Orrua al-  
dizkarikoak Arrasate  
Pressen**

Aste honetan Zumaiako Orrua aldirikarikoek bisitatu gaituzte, gure aldirikariari buruz zertxobait jakin nahieran. Orrua aldirikaria hiruhilabetekaria dugu eta oso-osorik euskaraz kale-ratzen du Zumaiako euskalzale talde batek. Udalak inprentako gastuak ordaintzen dizkie eta dagoeneko bederatzigarren alea kaleratu dute. Arrasate Press-en izan genituen gure esperientzia beraien aldirikariari aplika dakiokeen ikusteko asmoz eta bide batez gure lan egiteko era zein den jakiteko. Oso bisita atsegina suertatu zitzaigun hau, beste batean geuk joan beharko dugu Zumaiara.



**izen propioak**

Angel Larrañaga, 42 urtetako bedoñarra. Bi urtez Roneoko gerente izan ondoren, utzi egingo du bere kargua hil honen amaieran. Angel, CLPko Lan Kide Export-etik etorri zen Roneora. Aurretiaz Zentro Asistentzialeko Zuzendaria eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailburua izana zen. 1985ean bota egin zuten PNVtik. EA sortu zenetik, berriz, bertako kide izan da.

Jesus Mari Zabarte, "Garratz", 43 urte, Almeriako gartzelan dagoen arrasatearra. Otsailaren lehen, Frantziako Gastesiri Madrilen egindako epaiketan lekuko izan zen. Fiskalak zera leporatu zion Gastesiri, 1983an Zabarte eraman zuela bere autoan. Zabarte hiru aldiz izan da detenitua. Lehenengoz 1973an, 77ko amnistiarekin kaleratu zelarik. Azkenengoz 1984ean Hermanin. ETAko ekintzaile izatearen akusaziopean, 25 hilketa leporatu diote eta 200 urte inguruko kartzela-zigorra eman.

Juan Mari Osinaga, 40 urtetako aparejadore arrasatearra, Alkartu Elkartearen lehendakari berri aukeratu dute, bi urtetarako. Juan Mari Kontzeziño kalean dauka bere estudioa eta Manolo Azkonaga ordezkatu du Alkartu-ren lehendakari-tzan. Alkartuk orain 13 urte zabaldu zituen bere ateak, On Jose Luis Iñarraren bedeinkazioaz.

Iñaki Belategi, 35 urte, Eibarren jaioetako durangarra. Deustuan Zientzia Ekonomikoak ikasi zituen, bertan lizentziatuz. 1977an Coprecin sartu zen. 1985ean Fagor Lenniz-era pasatu zen gerente izateko. Orain Ulgorreko gerentziara igaro da, adjuntu moduan. Zurrumurruek diotenez, Iñaki duzue Ulgorreko delfin berria.

**Europako ardatz atlantikoa indartzen.**

Joan den asteartean, hilak 7, Bordele inguruko hiru lagun frantsesen bisita izan genuen Arrasaten, kooperatibak ezagutzera etorriak: Xavier Rodriguez, Akitaniako produkzio kooperatibetan ari dena, Robert Ghilardi de Benedetti eta Ducout diputatua, Gi-



rondeko Kontseilu Orokorreko aholkulari teknikoa eta lehendakariordea, hurrenez hurren.

Hirurak oso kezkatuta azaldu ziren Europako ardatz atlantikoa baztertuta gelditzeke arriskutan dagoelako mediterraneanaren mesedetan.

Xavier Rodriguezen esanetan, "zuek euskaldunok sekulako ahalmena duzue gauzak egiteko eta aurrera ateratzeko, baina European inor gutxik dauka horren berririk".

**Kontxi Aristimuño eta Daniel Aiausti** hilaren 21ean ezkondu ziren. Bergaratarrak ditugu, eta dirudienez zoriontsuak dira. Argazkian duten aurpegi irrifartsua ikusi beserik ez dago. Ikusten duzuen ezkontza egunean zikintzeko beldurrik ez zuten.

Pedro Luis



**BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA**

\* 5 orduetako ikastaroa. Goizez (4. urratsa)

Otsaila-Ekaina

\* 2 orduetako ikastaroak. Arratsaldez eta gauzez (3. eta 5. urratsa)

**Matrikula zabalik Otsailaren 17rarte**

Izen ematea: Udal Euskaltegia (Barren kale, 33-2. A)

Tfnoa: 76 44 53 BERGARA



ERAÑA

AHOLKULARITZA

OROTARAKO ASEGUURUAK

Kontzeziño kalea 4 - behea

Tfnoa: 79 83 95

ARRASATE

## Gero eta kotxe gehiago eta komunikabideak lehenean

Arrasatearren batek Bilbora kotxez doala esaten duenean, aldameneko norbaitek "baina han sartzeko ausardia duzu?" galdetzea ez da arraroa izaten, denok ezagutzen bait dugu Bilbok duen trafiko arazoa. Dena dela, azken urte hauetan arazo hori gure herrian sofritzen hasi gara eta jadanik ohituta gaude karabanetan denbora galtzera. Trafiko arazo hori gero eta kotxe gehiago dagoelako dugula esatea, arazoari esplikazio sinplegia ematea litzateke. Arrasate nahiko herri aberatsa izanik, komunikabide nagusiekiko dituen loturak nahiko eskasak direla esan daiteke, eta azken urte hauetan dugun arazoa kontestu horretan kokatu beharko dugu.



*Ordu batzutan kotxean ibiltzea abentura bat da*

### Errepideak eta proiektuak

Gaur egun Arrasateetik edozein lekutara alde egiteko kotxea edo autobusa erabili beharra dago, bertatik pasatzen zen trenaren interes eta arazoi desberdinak zirela medio 60. hamarkadan kendu egin bait zuten. Hamarkada horretan bertan, kooperatiben garapenarekin bat herria haziz joan zen, gaur egun 26.000 biztanle izatera heldu garelarik. Biztanlego hau eta herrian sortzen den ekoizpen industrialak garraiatzeko orain dela 30 urte genuen errepide sarea dugula esan behar, hobetu dela inork ukatu ezin badu ere.

Bizkaiarekin lotura Kanpanzar Mendatea dugu; Elorriori dagokion zatian errepidea urte gutxi batzuek dela konpondu bazuten ere, Gipuzkoa aldetik dauden zulo eta errebuelta txarrak

kotxerik ederrenean joanda ere, nahi eta nahi ez sufritu beharrean gaude. Horrez gain, errepide horrek kamioi trafiko handia du, askotan benetan arriskutsu bilakatzen delarik. Gipuzkoako Diputazioak pasa den hilabetean errepide hori konpontzeko erabakia hartu zuen, zenbaiten eritziz konponketa horiek makilajea baino ez direlarik izango.

Konponketa-lan hauetan errepidea asfaltatu eta errebultaren bat zabalduko dute, eta gure ipurdiek hori eskertuko duten arren, zuloen arazoa konpondu egingo bait da, errepideak arriskutsu eta geldia izaten segituko du.

Errepideetarako plan orokorrean, Durango-Beasain errepidea 90 edo 91. urterako egitea aurriztatu da. Errepide hau Kanpanzar Mendatea Epeletik

zeharkatu ondoren Arrasaten Zigarrola aldera helduko da. Errepide berri honek, Bizkaiarekiko lotura neurri handi batetan hobetu lezake. Hau horrela izanik ere, sor daitezkeen hondamen ekologikoak kontutan izan beharko dira.

Araba aldera joatea pentsatzen duenak Gatzaga edo Arlaban Gaiak pasatu beharko ditu. Lehenak errebuelta ugari eta kamioi trafiko ikaragarria duen bitartean bigarrena oso estua dugu. Dagoeneko Arlaban zeharkatzen duen errepidean ibilgailu geldoentzako karrila egitea erabakita dago, baina honekin komunikabideen arazoa konponduko zaigu?

### Bariantea edo inoiz amaitzen ez diren lanak

Gaur egun egiten ari diren saihesbidea orain dela hamar urte baino gehiagoko proiektua dugu. Bertako lanek, arazo ezberdinak medio, leherketek eragindako harri erorketak, Labeko-Koba aztarnategiaren aurkikuntza eta batez ere Altuna-Uria enpresa eta Diputazioaren artean sortutako tirabirak, atzerapen ugari izan dute. Lanak denboraldi luze batez ia paralizaturik egon ondoren, Altuna-Uria enpresa eta Diputazioa, pasa den urteko Abenduan akordio batetara heldu ziren, urte hau bukatu baino lehen lanak bukatuta egongo omen direlarik. Bariantea honek, herrira bertara ez datorren trafikoari irtenbidea emango dio, herri barnekoa neurri handi batean arinduz. Dena den pentsatzekoa da bariantea hau, orain dela hamar urteko proiektua dugula eta orduko egoerari irtenbidea emateko pentsatua izanik,

gaur egungo beharrak ez dituela eseko nahiz epe laburrera arazoa-ri irtenbidea emango dion, luzera gaur egungo egoera berdinean izateko arriskuan gaude.

## Maltzaga-Armiñon autopista

Maltzaga-Armiñon autopista egiteak Arrasate errepide nagusi-ekin lotzea suposatuko du. Azken aldi honetan bere inguruan esames, zurrumurru eta adierazpen ugari entzun badugu ere, badirudi proiektuak ez duela aurrera egingo. Eurovias enpresa dugu autopista honen kontzesionaria, enpresa hau Europistas enpresarekin bategite-prozesuan dagoelarik. Eurovias-ek Burgos-Armiñon zatiaren kontzesioa baino ez duela dioen bitartean Europistas-ek ezer argitu gabe arazoa aspaldi gelditu dagoela dio. Gipuzkoako Diputazioak joan den urteko Abenduan hartutako akordio baten ondorioz, Administrazio Zentralari eskatu zion Eurovias-i Maltzaga-Armiñon autopista egitea exijitzeko. Gipuzkoako Diputazioak akordio hau hartzeko orduan, PSOEk kontrako botoa eman zuen, N-1 Europarekiko lotura-ardatz gisa defendatu zuelarik.

Autopista hau egitea oso garesti gertatuko litzateke, arazo ugari gainditu beharko lirateke eta.

Arrasateri dagokion autopista zatian tunel bat egin beharrean aurkituko lirateke kontutan

harturik behintzat dagoeneko bariantea mendian nahiko gora doala. Tunela, hondamen ekologiko urriak sortzen baditu ere, beste edozein alternatiba baino garestiago suertatzen da. Beraz, badirudi oraingoz behintzat

Gasteiz trenbidez lotzeko Y proiektua aurkeztu zuen, oraingoaren orde zinetan lineak Arrasaten elkartuko ziren. Ezer erabaki gabe dago oraindik eta ez dakigu trenik izango dugun ala ez, baina horrek Arrasaten izan deza-



*Konponbide orokor bat behar da*

autopistarak ez dugula izango.

## Tren-geltokia S. Agedan?

1988 urteak berri ugari ekarri arren, trenak garrantzi berezia izan duela esan daiteke. Joan den urtean Gobernu Zentralak trenbideetako zabalera aldatzea eta abiada handiko trenak erostea erabaki ondoren gure herrian gaiak interes berezia sortu zuen, Santa Agedan tren-geltokia jar zezaketela entzun bait genuen. Abiada handiko tren hauen lehen linea Sevilla eta Madrid artean eraikiko dute eta bigarren epe batean Frantziako mugaraino helduko dira trenok. Hori zela eta, Eusko Jaurlaritzak Donostia Bilbo eta

keen eragina azter genezake dagoeneko. Trena Arrasaten jartzekotan Arrasatearrok Euskal Herriko hiriburuak hurbilago izango genituzke, proiektuaren arabera Donostia, Bilbo edo Gasteizera joan ahal izango bait ginateke inolako trasbordorik gabe. Baina enpresei beren ekoizpenak trenez bidaltzea errentagarri gerta lekiekeen ikusteko dago. Dena den, trena jarriz gero momentu honetan ez dugun aukera izango da eta herriari onuragarri gerta dakioko. Dena den, trena herritik pasatzekotan ez da epe laburrean izango eta momentuz bariantarekin eta errebueltekin konformatu beharko garelako dirudi.



**BELUN  
TABERNA**

**Lagunarte bikaina**


Garagartza Auzoa, z/g Tfnoa: 796114

**ITURRIOTZ TABERNA**

**GIRORIK**

**JATORRENA !!**

**Tfnoa: 79 16 04**



## Famauen ahotik



### Zer aldatu da 28 urtien San Frantziskon?

Gauza asko aldatu dittuk, gazteixa kontuen batez be. Sasoi baten "Juventud Franciscana"-kin eta, hemen itzelezko gazte pillue junte-tan zuan. Makina bat reunixo eta jolas eitten zuan hemen. Gaboneta-ko karrozak eta Ikastolako gorabe-herak be hementxe hasi zittuan, gero juen dittuk indderra hartuaz, bañe. Oñi, ostera, penie jaukat haundixe; jentie hotzittute ikusten juat, elixan gazte gutxi eta bestela be etxak ha lengo giro ederra.

### Eta zein da Frai Rufinon lana?

Hemen lan asko egoten dok: at-er-a datorren jentie atendidu, lagunta-sun-eske datorrenai emon... etxeba-ku-ei etxie topau ta holako gauzak. Eta hortik aparte, ba, etxeoandrak eitten dittuen lan danak: bazkaixe preparau, errekauek ein... Askotan norberak gure littukien lan asko ein barik itxi bier, astik ez-ta. Ene, etxeo andrak zenbat lan eitten dauen! Sueldue eta ona bier lau-kiek; ez oñi dauzen moruen, ezebe kobrau barik eta jubilau ta gero iñungo laguntasunik eztaukiela.

### Frai Rufino 2: "Etxekoandrak sueldue eta ona bier laukiek".

#### Bañe, uso-zain be bai?

Bai, animalixa klase guztiek gustau izen jatek bañe, batez be usuek, eta Mondrauera etorri ni-tzenien usuek ipinttie zuan nire ilusifñue. Hemen inguruen iñun to-pau ezin eta oin dala 20 bat urte Santanderretik ekarri nittuan bi pareja, pareja bakotxa 70 pzta. pagaute. Gaur egunien etxakixat zenbat egongo dien. Niretzat usue herriko pake, poz eta zibilizazi-ñuen sinbolue dok.

#### Orduen, uso-errezetaik ez?

Errezeta bat emongo dotzuet bañe usuena ez. Usoik ezin juat jan; bihotza errebentetan jatek. Bakallaue pil-pillien zelan ipini esango dotzuet.

Beraketan 45 bat ordu euki bier dok hiru-lau bider ure aldatu-te. Preparatoko orduen ure suten ipiñi bañe irikin barik, bestela dana galdu dok. Gero bakallau zatixek atara eta hazurrek kendu, eta trapu bateaz siketu. Hurrengo, zartakin baten olixue erre berakatz askokin. Berakatzak zehe-zehe eindde gero, ireztontzi baten pasau eta lurrezko kazuela baten bakallautara olixue bakarrik bota; dezente, ixue bakallau zatixek tapau arte. Nik esparrago-ur apur-txo bat be botaten jutzat. Gero erain, bekokixen izerdixek urten arte. On ein!

*Estepan Plazaola eta J. M. Garai*

## Zelebrequerixak

Domeka gau baten, baso erdi mordua jo ondoren, abixau da Xerapio Eibartik Plazentziaruntz. Bidian zigarratxo bat erretzeko tentaziñua etortzen jako. Etara zi-garrua, pospolua ixotzen hasi... eta, haize madarikatua! Pospolua i-txungi. Neri etxostak, pa, adarrik joko. Hartzan dau buelta erdi, esku bixekin eitten dau haize ezkutua eta pizten dau azkenian. Gero, ke ga-lantak etaraziaz, aurrera... eta hala-ko baten, aibadios, berriro Eiba-rren. Derrepente Elkano eta Maga-llanes etorri jakozen burura, beti direziño bardifiña eruanaz urtendako lekura bueltatzen dala... Baina Xerapion hazaiña oinddio homolo-gau barik dago.

■ ■ ■ ■ ■

Aintziñan bi itxuk txirtxil harra-patzen ei ziharduen. Han zebitzen zuluana zotza sartu eta txirtxilla etaratzeko asmotan.

— Bajatok, bajatok -estaen ei eben.

Eta baita etorri be, baiña tren-a. Maltzagako tunelien ziharduen txirtxil billa.

■ ■ ■ ■ ■

— Dozenatxo bat arrautza kon-benturako...! -frailia hilero hilero fijo baserriko atian zakuakin. Hasa-rreru jako etxeoandriari. "Hurren-guan entzun bia jostak entzutekon bat".

— Dozenatxo bat arrautza kon-benturako...

— Eztaukagu, ba. Oilluak mi-katu ein jaku eta gizonak basuan die garotak.

*Juan Martin Elexpuru*



**URONDO** elektrizitatea.

Nafarroako etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- \* Elektrogaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak



**JESUS ELKORO**

BIDEO - KLUBA

•••• Tfnoa: 791886  
ARRASATE

# Aukera zuzena Aseguru onena



Gure jendea aseguratzeko da **Lagun Aro Aseguru**en zereginik nagusia. Pertsona bakoitzaren betebeharra asegururik onena aukeratzea da.

Pertsonak eta Aseguruak elkar ulertu behar dute. **Lagun Aro** konfidantza ezarri du gure jendearengan eta horregatik igorri dio sobera berak ere.

**Lagun Aro** izan baita hazkunde azkarrena izan duen asegurua azken urteotan.

Egin ezazu zeuk ere Aukera Zuzena eta izango duzu Aseguru Onena.

**SEGUROS LAGUN ARO ASEGURUAK**

Lan Kide Aurrezkia Taldekoa

**Aseguru on bat. Geurea.**



## **HITZALDIA**

Gurasoentzat hitzaldi interesgarria

Gaia: " ERRESPETOA, DISZIPLINA, ZIGORRA, AUTORITATEA, ... ZER ?

Hizlaria: IÑAKI OSORO (Irakaslea)

Eguna: Otsailak 14, Asteartea

Ordua: 3, 30 ak

Lekua: A E D elkartearen lokala

## **HITZALDIA**

Gaia: " ETA eta GOBERNUAREN arteko TREGUA eta NEGOZIAZIOA "

Hizlaria: EMILIO LOPEZ ADAN " BELTZA "

Eguna: Otsailak 14, Asteartea

Ordua: 7, 30 ak

Lekua: MONTERROI kultur-etxea

## **MINTEGIA**

Gaia: "BALOREEN ALDAKETA"

2 edo 3 saiotan A E Dn burutuko da

Lehenengo saioa: Otsailak 16, Osteguna

A E D Elkartearen lokalean, 7 etan

Eztabaidarako puntuak:

- Zeintzu dira aldatu diren baloreak ? Famili kontzeptua, Erljioa, Sexualitatea ...
- Nola eta zergatik eman da aldaketa hau ?
- Zeintzu dira indartu behar diren baloreak ?
- Hau egiteko, zein jarrera hartu behar da ? Zeintzu ekintza burutu ?


*Aukera ugari duzu, gustokoenetan parte hartu !*

**ARRASATE EUSKALDUNA ZURE ESKU DAGO !!**

# A zer-nolako martxa!



Etorri berria da. Ikusiko duzue nola antiojuak laster modan jartzen diren. Arrasaten bai dagoela jende arraroa!




Stan Laurel eta Oliver Hardy ere herritik pasatu ziren. Hollywoodeko giroaz nazkatu ziren eta Euskal Herria ezagutzeko gogoaz zuten




## LASO ARREGI argazki denda

Estudioa  
Erreportai industrialak  
Argazkizaleentzako zerbitsuak  
Zinea  
Bideoa

Alfonso Jakintsuaren Plaza, 3 Tfnoa: 79 12 75 Arrasate



Batzutan kontrako poloak elkartu egiten dira. Atzo tiroka, gaur lagunak. Argelarako abioia hartu baino pixkat lehenago harrapatu genituen




Hauek bai harrapatu genituela "in fraganti"!! Asma ezazue nondik datozen!



Gema eta M. Pilarentzako ere egun berezia izan zen. Oraingo honetan Txano Gorritxu garaiz heldu zen amonarengana opariak eramateko.




Eta hemen, mistikoak. Badirudi orain Santiagoko bidea Arrasatetik pasatzen dela. Non harrapatuko zituzten kontxazko hautsontziak?



## Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.  
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE





A ze aingerutxoak! Ez duzula inoiz platerik apurtu?  
Trankil, oraindik badaukazu astia



“Askatasunaren estatua” eta  
indio bat. Nahiz eta irrifartsu agertu, ez dugu  
uzte bien arteko arazoak konpondu direnik.



Ez, ez दौरa Fofó eta  
Miliki. Bata Bergarakoa da eta besteak Errealeko  
entrenatzaile ohi baten abizena du.



Makina bat diru irabazi zuen  
zestoko gauzak saltzen.



Zuhia eta

**OSO GAUZA BEREZIAK**

**ZERKAOSTETA, 8 ARRASATE**



“Etorri berria” eta bere koadrila. Ikusten denez, denetariko jende-mota aurki zitekeen asteartean.




Nahiz eta seinale pila jarri, zirkulazio-arazoak ez dira erraz konpontzen.



Arkaute-tik ateratako azken promozioa. Bular faltagatik ez dadila izan!

Honek ONU Txikia ematen du. Ezkerretik eskuinera: Suitzarra, brasildar eta holandarra.



**SAMEGO  
GARBIKETAK**

**ZERBITZU  
KOOPERATIBA**

Honako zerbitzu hauek eskaini ahal dizkizuegu:

- \* OBRA BUKAERAK
- \* MOKETAK
- \* LOKALAK ETA INDUSTRIAK
- \* PORTALAK ( PERTSIANAK, PATIOAK ...)
- \* BULEGOAK

- \* EDONOLAKO DENDAK
- \* ERA GUZTIETAKO KRISTALAK  
( KRISTALERA HANDIAK BARNE )
- \* ETXAURREAK
- \* ZORUARI DIZDIRA EMAN

**ZURE ZERBITZURA !!**

Alfonso X. Jakintsua, 5 Tfnoa: 79 70 39 ARRASATE

“Euskal Herriko Idazleen Elkarteak 83an sortu zen. Baina aspaldiko gogoak zen hori. Zaitegi eta Andima gerraondoan hasi baitziren euskal idazleak bildu nahian, Euzko Gogoan egin zutela leku aproposa lehendabizikoz. Zaitegi Guatemalatik Baionara itzuli zenean, pentsatu zuen euskal idazleen etxea edo sortzea, baina pott egin zuen 56. urteko asmo hark. Hortaz, 83a arte ez zen halakorik moldatu, ordukoan Anjel Lertxundi lehendakari bezala”.

*(Patri Urkizu, Euskal Herriko Idazleen Elkartearen lehendakari berriak “Argia” aldizkarian)*

“Aretxabaletako herria zoriondu beharrean aurkitzen gara, Iparraldeko ikastolekin erakutsi duen elkartasunagatik. Aurten marka guztiak hautsi dira eta 417 egutegi saltzea lortu dugu (125.100 pta.) eta horrek, herriak urtetik urtera Iparraldeko ikastolekiko borondate hobe duela erakusten du”.

*(Seaska, Iparraldeko Ikastolen Elkartearen Aretxabaletako herriari)*

“Sarritan jubentzia 43 edo 44 km. orduko egin dituztela eta, harriz eta gustora gelditzen dira zuzendariak eta zaletuak. Nire ustez hori txarra da. Hobe litzateke jubentzian 100 km. tik gorako karrerak jarri eta media txikiagoak ateratzea. Adin horietan gazteei batez ere fondoak hartzea komeni zaie eta horretarako kilometroak behar dituzte; entrenamendua oinarrikoa da maila hauetan. Askotan gertatzen dena zera da: 60 km. korritu “a tope” eta zeharo nekatuta ailegatzen dira helmugara. Aldiz, km. gehiago eginda gutxiago nekazten dira”

*(Sabin Padilla, kirol-mediku gatzagarrak DV egunkariaren “Zabalik” gehigarrian)*

**Zein helbururekin daramazue aurrera PERI delakoa?**

PERI edo “Plan especial de rehabilitación integral” ez da gauza berria, aurreko korporazioak martxan jarritakoa da. Dena den, esan behar da plan hau Eusko Jaurlaritzak kaleratutako dekretu baten ondorioa dela. Dekretu honen bidez, Komunitate Autonomoko herrietako parte zaharrak berrikuntzeko diru-laguntzak ematen ziren, ikusten bait zen herrietako parte zaharretatik jendea auzoetara bizitzera joaten zela parte zaharrak deterioratzen zihozten bitartean. Berregokitze lan hauek Arrasaten Suradesa enpresak zeramatzen aurrera, baina parte zahar osoa berregokitzeko plan bat jarri behar zan martxan eta, hori dela eta, egin zen PERIa. Dena den, dekretu horrek Parte Zaharrak bakarrik hartzen ditu kontutan eta guk Eusko Jaurlaritzari arrasateko arrabalak ere plan horretan sartzen utzi zezagun eskatu genion, hau da, Maala, Zarugalde eta Gazteluondoko arrabalak, hauek ere antzinako harresietatik kanpo egon arren, parte zaharren zati kontsidera bait daitezke. Parte zaharrak konpontzeko ahaleginak egin behar dira, baina auzoak ere kontutan izatekoak dira. Orain San Andres auzoa berregokitzeko estudio bat daramagu aurrera, zeren parte zaharretako etxeek 200 urte iraun duten bitartean, garapen industrialaren garaian eraikitakoek ez dakigu zenbat iraungo duten.



*Jose Mari Usatorre*

*Arrasateko Udaleko Urbanismo Batzordearen burua*

*Jose Aranzabal*

**ELEKTROGAILUAK**

Iturriotz, 15

Tfnoa: 791516



**AKOBERE**ren garantia eta zerbitzu teknikoarekin



**FAGOR SUKALDEEN HORNIKETA OSOA - OPARIGAIK**

Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892



**KULTUR FISIKO ZENTROA**

- Squash-a
- Karatea
- Gimnasia
- Muskulazioa
- Sauna
- Masaiak
- Solariuma

6,45 etatik 10etara  
Irekita

Kontzeziño, Tfnoa: 799731

## DEBA GARAICO UDAL ELKARTEA

Deba Garaiko Eskola - Lantegirako  
**KULTUR IRAKASLE BAT**  
behar da.

12 hilabetetarako egun - zatirako lan - kontratua egingo zaio,  
epe hau dena hiru urtez luza daitekeelarik.

### BALDINTZAK

- Gutxienez magisteritza titulua izatea, Letretan Lizentziatuak ere onartuko direlarik.
- Komunitate autonomoko bi hizkuntzak ezagutzea.

Interesatuak, instantzia, " curriculum vitae " delakoa eta meritoak egiaztatzeko dokumentazioa Otsailak 17 aren 15 ak baino lehen Arrasate Pasealekua 5 ean dagoen Udal Elkartearen Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dituzte.  
Oinarriak ere hemen jaso daitezke.

## LEINTZ BAILARAKO BERTSO-TXAPELKETA (Gazteen arteko kanporaketa)

Otsailaren 12an, gaueko 10,30etan,

Apotzagako Auzo-Etxean

Antolatzailea: Leintz Bailarako Bertsolari Eskola

### Maiatz

**ILEAPAINDEGIA**  
mixtoa

Elkano, 38 (Musakola)  
Tfnoa: 79 58 78  
**ARRASATE**

### MARTINEZ

**aroztegia**  
**Sukaldetan**  
**neurri guztietako**  
**altzariek**

Araba Etorbidea, 13  
Tfnoak: 79 22 81 79 18 41



**Almacen del Mueble**  
**Mondragon**  
Prezio paregabeak  
Zatozte

Gipuzkoa Etorbidea, 6 Lehena behea Legarre


### URIBE-ETXEBARRIA AROTEGIA

**Obra-eralkuntzak**  
**Arotzeria mekanikoa**  
Araba Etorbidea, z/g  
Tfnoa: 79 15 71

## Aizkora, bentanila osteko laguna

Herri guztiek dute beren pertsonaia bitxi edo herritarren artean bereziki ezagunak direnak. Gure herrian ere ugari ditugu eta hauetariko bat Jose Mari Balanzategi da. Izen honek askori ez dio gauza handirik esango, gehienok "Aizkora" ezizenaz ezagutzen bait dugu.

Gaur berarekin egon nahi izan dugu ez bere bizitzako kontuetz hitz egin diezagun, Udaletxeko langile gisa bertako kontuetz zerbait jakiteko baizik.



Jose Mari Balanzategi "Aizkora"

— Arrasate Press: Aizkorak Udaletxean 18 urte darama lanean; denbora guzti horretan, Udaletxeak jendearekiko dituen harremanak aldatu egin direla esango zenuke?

— Aizkora: Bai, asko zabaldu da. Lehen jendea Udaletxera beldurrez sartzen zela esan daiteke. Orain edozein etortzen da, bai haurrak, bai pertsona nagusiak, edozein eta dituzten zalantzak arazorik gabe kontatzen dizkigute. Askoz ere zabalagoa da, zalantzarik gabe.

— Eta zuek Udaletxeko langile gisa, aurreko errejimenetik hona aldakuntzarik somatzen duzue?

— Guretzat ez du aldakuntza berezirik suposatu errejimenez aldatzeak. Guk konbenio berezi bat dugu, hau da, Administrazio Lokalek komenio berezia dute eta lan-baldintzak ez dira asko aldatu, lehen ere bait geneukan.

Aldakuntza hori jendearekiko harremanetan eman dela esan daiteke. Lehen Alkate edo Idazkariarekin hitz egiterakoan "usted" edo "señor" tratamenduak erabili behar

genituen, orain aldiz, askoz ere konfidantza handiagoa dago. Edozein arazo suertatuz gero, beraiengana inolako arazorik gabe joan zaitezke eta dituzun arazoak konpontzen saiatu.

Korporazio-aldakuntzak gure lanari ez dio desberdintasun handirik ekartzen.

— Jendea bere Udalari dagozkion gaiez ondo informatuta al dago?

— Ez, Udaletxera jende asko etortzen da, guri zein gai dagozkigun eta zein ez, ez dakiena. Asko bere arazo pertsonalak edo bizilagunekin dituztenak konpondu nahian etortzen dira. Guk entzun egiten ditugu eta kexa horiek planteatu behar dituzten lekura bidali.

Bestalde Udaletxeak departamentu ugari du eta bakoitzak gai berezi batzuek lantzen ditu. Jendea lehen momentuan gurgana etortzen da, nora joan behar duenez dakielako.

— Bentanilako funtzionarioek, beti oso ospe txarra izan duzue...

— Bai, hori egia da. Niri ere txikitzen Udaletxean sartzeak beldurra ematen zidan. Behin edo behin aitak enkarguren bat

bidaliz gero, sartu eta berehala irten nahi izaten nuen. Dena dela, orain gauzak aldatuta daude.

— Eta jendeak zuek nola tratatzen zaituzte?

— Denetik dago. Batzuk oso haserre etortzen dira, beste batzuk errespetu handiarekin tratatzen zaituzte, baina guk denak atenditu behar izaten ditugu. Noizbait, nor edo nor bere onetik irtenda edo etorriz gero, guk udaltzainak deitzen ditugu, hori ez bait da gure arazoa.

— Beno eta gai hau alde batetara utzirik, zein da zure sekretua horrenbeste jendek ezagutzeko?

— Ni saltsa guztietako peregjila naiz. Herrikoa izateaz gain, Alkartu Soziedadean, SUDC-en, tanborradan, mila gauzetan aritu izan naiz eta horregatik ezagutzen nau jendeak.

Bestalde gure aitak denda izan zuen eta han ere jende ugari ezagutu nuen.



Urrezko puntua Pedruskorentzat

## Pedruskok liderrarekin enpatatu

Joan den igandean Abetxukon jokaturako partiduan, San Andreseko

taldeak binakako enpatea lortu zuen liderraren aurka.

Jokalarien zerrenda: Txomin, Hierro, Sanchez (Markos), Gómez, Mikel, Rafa Luengo (Nando), Alfredo, Lázaro, Alex, Javi Luengo, Gaizka.

Partidua zaila ipini zen bisitariarentzat, 20. minutuan 2-0 galduz bait zihozazen. Bentaja honekin sailkapeneko liderrak konfiatu egin ziren eta, honen ondorioz, 40. minutuan Alfredok penaltz bentaja gutxitzea lortu zuen. Bigarren zatian Pedruskok zelai erdiaren jabe egitea lortu zuen eta 88. minutuan Lazarok enpatatu: 2-2.

Pedruskok sailkapenaren laugarren postuan aurkitzen da, liderra den Abetxukok baino lau puntu gutxiago dituelarik.

Bestalde, Alberto Perez entrenatzaileak, arrazoi extradeportiboak direla eta, ekipoa laster utzi beharko omen du, honen ordekoa Fernando Aguriondo izan daitekeelarik.



Gazte Mailakoek bakarrik galdu zuten

## Arrasate Pilota Sailak ondo hasi XLII. Deba Arroko Txapelketa

Joan den astebukaeran Arrasatek 1-3 irabazi zion Antzuolari.

Alebin eta infantil mailakoak garaipenekin etorri ziren etxera. Osinagak eta Etxebarriak 13-18ko eta Gonzalezek eta Lordi Zuazubiskarrek, 14-18ko emaitzaz irabazi zuten.

Gazte mailan, Iñaki Korta eta Mikel Markos-ek oraingo honetan galdu egin zuten, 18an gelditu ziren Galeano eta Arangurenen kontra (22-18).

Afizionatu mailan Juantxok, Federazio-Txapelketarako selekzionatua izan denez, ezin izan zuen parte hartu. Asier Mujikak eta Luis Kortak jokatu zuten, 8-22 emaitzaz irabazi zutelarik.

Botilari gisa, beti bezala, Patxi Murgoitio aritu zen.



## 1989KO SKY-KANPAINA

### ASTEBUKAERATARAKO IRTEEREN PROGRAMA

URTARRILA  
14-15 FORMIGAL  
21-22 CAUTERET  
28-29 CAUTERET

OTSAILA  
04-05 FORMIGAL  
11-12 FORMIGAL  
18-19 CAUTERET  
25-26 FORMIGAL

APIRILA  
08-09 FORMIGAL

MARTXOA  
04-05 CAUTERET  
11-12 FORMIGAL  
18-19 CAUTERET

#### PREZIOAK:

FORMIGAL: Irteera 5'00etan. Larunbatean 7.500pta  
Autobusa+ "Nieve Sol" Hotela, erdi pentsioan + erremonteak

CAUTERET: Irteera 4'00etan Larunbatean 7.950pta.  
Autobusa + "L'E courelle" Hotela, erdi pentsioan + erremonteak

—Aste Santuko irteera (Martxoaren 24 etatik 27ra) Frantziako Pirineora (Prezioa jarri gabe)

—Pazko asteko irteera (Martxoaren 25etik Apirilaren 1era) Alpeetara TIC-NES eta VAL D' ISSERE 42.000 pezeta  
autobusa+Le Lac apartamentua+erremonteak+tasak

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK: Besaiden, astelehen, astearte eta asteazkenetan 18'30etatik 19'30etara.

Tfnoa:79 84 74


podiuma

**Enrike Alonso,  
txirrindularia**

Enrike Alonso Arrasaten inoiz egon den lehen txirrindulari profesionala dugu. 11 urte zituela "Makatzena" Eskolan hasi zen. Eta mutilak ez du alferrik galdu denbora. "Duela bi urte, afizionatu mailan ondo ibiltzen nintzela ikusita, hasi nintzen planteatzen profesionala izateko posibilitatea". Afizionatu mailan lau urtez ibili da, iaz denboraldi erdian Zahorrek fitxatu arte. Afizionatuetan, duela bi urte "Bizkaiko Bira" irabazi zuen. Iaz bost garaipen lortu zituen. Profesional bezala Burgos, Galiza eta Riojako Birak korritu zituen.

Hilaren 16an hasiko da bere denboraldia, Albacete eta Valentiako egun batetako probetan. "Zahor" bere taldearen zuzendaria Moreno dugu eta, besteak beste, honako ziklista hauek osatzen dute ekipoa: Van Brabant, Suykerbuyck, Juan Tomas Martinez eta Ocañak; gainerakoak, oso gazteak dira. Taldearen asmoa, Estatuko proba guztiez gain, Giroan eta Portugal eta Ingalaterrako Itzulietan egotea da. Enrikeren erronkarik handiena, "Espainiako Itzulia" korritzea da. "Oso zaila izango da, 17 gaude ekipoa eta bakarrik 9 joango dira. Profesional mailako lehenengo urtea oso gogorra da, gure artean selekzio bat egiten da eta ondo ez bazabiltza agur esan diezaiokezu profesionaltasunari".

Enrikeri bere burua ziklista



Enrike, "Zahor"eko txirrindularia

bezala defini dezala eskatu diogu, "lasterketa gogorrak, mendia eta etapazko bueltak ondo datozkit. Springtarako, berriz, ez naiz batere trebea. Euskal Herriko Itzulia bezalako proba bat, esaterako, ondo datorrit. Baina dagoen mailarekin ia ezinezkoa da destakatea lehen urtean."

Entrenamenduei dagokienez, Enrike, bataz beste, egunero lau ordu ibiltzen da bizikletan, 110 km egunero. Negu aldean, atletismo, igeri egitea eta mendian ibiltzeari ere ekiten dio. Gainera, Enpresa-Zientziak ikasteko denbora ere nonbaitetik ateratzen du, hori bai, presarik gabe..

Bere garaietan hemengo ziklismo-eskolaren funtzionamendua oso ona ez zela eta, Oñatiko batera joan zen, "orain, ordea, Arrasaten lan ona egiten ari da ziklismo mailan".

Azkenik, zeintzu izan diren ziklismoko idoloak galdetu diogu, eta hona hemen erantzun diguna: "inoiz ez naiz izan idolorik dutenen horietakoak. Dena den, Marino eta Delgado gustatzen zaizkit".

Besaide

Besaide Mendizale Elkartek irteera bat antolatu du iganderako, hilak 12. Ibilbidea: Sunbilla-Mendaurren-Aranaz. Prezioa: 700 pta. Izena emateko azken eguna: ostirala, hilak 10. Inskripzioak: Monte eta Irati tabernetan.

Kote Lopez Rekarte

Kote baja izango da igandean Eibarrek Sestaoren kontra duen partiduan.

Eibar F.T.ko medikuak, Txema Peñalbak "neke sindromea" diagnostikatu dio. Sindrome honen arazoak bi izan daitezke: entrenamendu larregi egina edota duela gutxi izandako operazio ondorengo erre-kuperazio bortxatzea.

Egoera hau konpondu nahian, entrenamendu bereziak egiri behar dituzte, ea datorren astean Leridaren kontra jokatzeko prest dagoen.

Arrasate Kirolakek eta Oken-dok, galdu

Arrasate Kirolak Esku-Baloi Taldeak 29-22ko emaitzaz galdu zuen sailkapeneko liderra den Gasteizeko El Pilarren kontra. Nahiz eta galdu, Arrasate Kirolakekoek ez dute behera egin sailkapenean.

Okendo Kirolak Saski-Baloi Taldearen egoera kezagarriagoa da. Beasaingo taldearen kontra, 60-67ko emaitzaz galdu zuten. Ez bada gauzak zuzentzen, Okendo Kategoriaz jaitsiko da.

Denborapasen soluzioak:

**Aritgrama**  
Ezkerretik eskubira eta goitik behera:  
1, 8, 5, /, 7, 5, 3, +, 2, 4, 1, 4, 1, 7, 6, +,

**Jeroglifiko**  
Bezero atsegin bat  
(B - zero - hatxe - gin - bat)

**BIONA**


Zurgin Kantoi, 2      Tfnoa: 79 20 04      ARRASATE

**UGARTE**

**Industri hornidurak**

Arrasate pasealekua  
Tfnoa: 797300-8396  
Telefax: 793412

## Oñati-Paris, Arrasate-Fez



Betidanik izan dugu arrasatearrok Oñatirenganako gorrotoa, eta bekaizkeria ere, esan behar, harekin batera. Gaur egun ematen dira oraindik ezberdintasun hauek, eta, nola ez, baita arlo artistikoen ere.

Oñati, Gipuzkoako multzo artistikorik aberasenetariko baten jabe da. Ez ditugu orain deskubrituko bere Unibertsitatea, Migel Deunaren Eliza edota Arantzazu, adibidez. Gauza zera da: Oñati bera, bere osotasunean dela arte lan-bat; etxeek, urbanismoak, guztia zehatz-mehatz

antolatua, Paris txiki bat dakarkigute gogora. Reyes Korkostegiren eskutik ekin zioten antzinako aztarnak berreskuratzeari; eta modu batean lortu zuten, gaur den postale-herria izatera iristea baldin bazen euren nahia, behintzat.

Arrasaten ere halako zerbaitetan hasi ziren, baina nola!! inguru historikoen birmoldatze plan batekin baino, marrokiar hiri den Fezeko "zoco"arekin zerikusi haundiagoa dute ondorioek. Gauzak azkarregi egiten direnean, hona zer jazotzen den. Badirudi aukeratu leloa "aurre-ra, zementoa!" izan dela. Monterroren hasi zuen honek bere lana, atzekaldeko dorre batetan, gero Zurgin-Kantoiko arkura igaroz eta plastoierder bat utziz oroigarri bezala. Ez da behera etorriko, ez, baina estetikorik ez da oso erakargarria.

Kaleari heldu zitzaion ondoren bere txanda; zolu guztia jaso, zori-oreko adokinak berriz ere goza ahal izateko. Iritsi ziren, baina, iritsi be-

harrekoak, eta birritan egin behar izan zen, gero harria jo,...

Azkenerako postrea utzi behar, eta munduko artearen historian egin den lardaska handienetariko bat eskaintzen dizuegu, hots, parrokiaren hegoaldeko horman eta berogailua gordetzeko xedez eraiki zen gela. Kritikoren bat edo bestek eliz gotiko honen (1355) eta XIX. mendeko arte industrialaren arteko lotura bitxia azpimarratutako luke, tximini eta guzti.


Beste baterako utziko ditugu gainerako hainbat hankasartze eta aurregitasmo (hor geratzen zaigu, adibidez, Udaletxean altxatu nahi zuten faro-dorrea; no comment).

Amaitzeko, gure entzunetara heldu denez, parrokia berriztatzeke pre-supuestu bat burutu da. Zera eskatu nahi genuke, besterik ez: orainarteko funtzionaltasuna zertxobait baztertzea, estetikan arreta gehiago jarritz. Otoi!


Mikel Arregi



Udalaitz, S. A.



### GARANTIARIK SENDOENA!



**Tailerra: Musakola Auzoa, z/g**

**Erakusketa: Zarugalde, 35 behea**

**Tfnoak: 79 21 25 - 79 18 80**

**ARRASATE**

Ingeleseko klaseak



maila guztietarako

**INGELESERAKO SARBIDEA**

Iturriotz, 25 Tfnoa: 79 90 36  
Arrasate

Bidekurutzeta, 19 Tfnoa: 76 30 01  
Bergara

## "PAL"

burdindegia, brikolage eta tresneria

Uribarri Etorbidea, 3

Tfnoa: 79 31 99

Arrasate

## BAKAILO ETXEA

Makailaoa eta beroni buruzko produktuak

Makailao, kroketa eta piper kazolak

prestatzen ditugu

Mondragones, 7 (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE



# Autoa, gizakiaren lagunik onena



Txakurra omen zen, lehen, gizakiaren lagunik onena. Hala diote, behintzat. Baina orain, autoak hartu du postu hori, zalantzarik gabe. Pentsa dezagun, bestela, autoa gaixotu eta eritexera eramaten dugunean, zer-nolako ondoeza sortzen zaigun barranean. Edota, lehengoa zaharkitua

dagoen aitzakiaz, auto berria behar dugula geure burua konbentzitzen dugunean, zer-nolako aztoramenak asaldatzen gaituen. Horrela, autoak gure bizitzan hartu duen protagonismoak justifikatzen du, besterik gabe, Arrasate Press honetan, berari ere tarte egitea aldizkarian.

Sail berri hau taxutzerakoan, oinarriko ideia batzuk hartu ditugu kontutan. Lehena, gaur egun ez dela auto txarrik egiten. Teknologiaren garapenak eta marka ezberdinen arteko lehiak ekarri dute ondorio hau. Edozein auto erosten dugula ere, gutxieneko kalitate eta fidagarritasuna seguruak dira, ohizko gafeak salbuespen.

Bigarren ideia, hainbat autoren artean bat aukeratzeko arrazoiak, oro

har, subjektiboak direla. Lehenbizi, autoa gustatu egiten zaigu, besterik gabe, geure buruaz dugun irudiari egokitzen zailoako edo. Eta ondoren hasten gara arrazoi objektiboan bila: mailetero handia umeen trasteak sartzeko, edo motor indartsua aurreraterakoan ziurtasuna areagotzeko, etab.

Gauzak horrela, iritzi gutxi emango da sail honetan. Ahalik eta informaziorik onena ematen saiatuko gara, hori bai. Eta hortik aurrera, bakoitzak egin dezala gehien komeni zaiona. Txakurrak, bere aldetik, traste guztiak mailetan sartu eta etxetik alde egiten badu ere.

Mikel Intxausti

## ENTZUN GAITUZUE? BA, ARI GARA!!



MUSIKA TRESNAK - Tfnoa: 79 29 09

## BRANKA

### JATETXEA

Eguneko menua  
eta karta

Zarugalde, 1 Tfnoa 796010

## TITARE

LENTZERIA FINA


Olarte kalea, 8  
ARRASATE

# O S T A R K U D A N T Z A L E K U A

Hezurak astintzeko lekuri aproposena

Unbarr Etorbidea 8

## Zer-nolako garrantzia du ipuinak haurraren hizkuntz irakaskuntza-prozesuan? (Hitzegiten, irakurtzen, idazten ikasteko)



Gaur hasten dugun sail berri honetan, umea, haurra izango da gai edo protagonista; eta haurrak HAZI ETA HEZI egin behar dituztenentzat (guraso, irakasle, etab.entzat) interesgarriak izan litezkeen gaiak aztertuko ditugu, modurik erraz eta ulergarriean.

Ez dugu hemen aztertuko haurren garapenerako ikuspegi psikologikotik ipuinak duen garrantzia; ba-

karrik azpimarratu nahi dugu ipuinaren balioa, tresna bezala, haurrak komunikazioan inplikatzeko, komunikazioa mantentzeko, eta komunikazio-gaitasuna aberasteko.

**Zer erakusten diegu haurrei ipuinen bidez?**

Gai honetaz zenbait erreflexio egingo ditugu, bakoitza garapen-prozesuan urrats bati dagokiolarik:

- lehendabiziko hitzak
- elkarrizketa jarraitua eta ordenatua

- irakurketa eta idazketa

**Lehendabiziko hitzak:**

Bistan dago nagusiek ipuinari ematen diogun protagonismoa haur txikiekin harremanetan jartzeko. Ipuinak haurrekin ditugun hainbat elkarrizketa posibilitatzen ditu, el-

karrizketa hauen bidez hainbat gauza erakusten diegu: komunikazio normalerako behar-beharrezko izan go zaizkionak, hain zuzen:

- txandak gordetzea (komunikazioan batek hitzegiten duenean, besteak entzun egiten dio, eta gero alderantziz, eta horrela eginez haurrak rol biak bereganatzen ditu)

- hitzen balorea ( ahoskatzearekin batera objektuak seinالاتu, eta ahoskatzen ditugun soinu hauek balio bat dutela, zerbait adierazten dutela)

- galdera-erantzuna

Laburtuz, ipuinen bidez, komunikazio munduan (hiztunen munduan, gizakien munduan) sartzen laguntzen diogu haurrari.

"Klarion" Taldea

### ORTZI

ERRETEGIA

ANGIOZAR AUZOA

BERGARA, Tfnoa:76 22 68

## Eroski Kontsumatzaileen Komitea

### Informazioa eta Formazioa


Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski denda

## LA UNION



Garaje elektro-mekanikoa  
Agentzia ofiziala  
Tailerra  
Erakusketa

Tfnoa: 79 97 12



PEÑACOBA  
Auto-Eskola

Zarugalde, 46  
Tfnoa: 79 29 93  
79 14 01

ARRASATE



## A U Z O - L A G U N

Gure **JANARIN** jaki prestatuak eta aurreprestatuak aurkezten dizkizugu.

Arrasaten, oraingoz, Uribe Auzoko **EROSKI** supermerkatuan aurkituko dituzu.

## Zaratazko kutsadura

Gaztetxean egiten diren kontzertuek ateratzen duten zarataz Ferixalekuko auzokideek protesta egiten dute...

Gure zibilizazio aurreratu eta industrializatuaren ezaugarri nagusia, hau da: zibilizazio zaratazua izatea. Zarata etxean, kalean, lantegian, tabernetan... zaratak dena inguratzen du. Musikak animalia basatiak mantsotzen dituela diote, baina gaur egun zaratazua eta estridentea da hau ere.

Eta zarata, irakurle lagun, eguratsaren edo ingurugiroaren kontaminante bat da, bestea bezain arriskutsua edo arrisku handiagokoa gainera.

Pertsona asko daude entzumenagoritu edo gortu samartuta dute-

nak lantegiko zarataren ondorioz. Baina ez da entzumenak bakarrik hondatzen zaiguna, zaratak stressa, urduritasuna, suminkortasuna, logabetasuna, espasmurako joera... ekartzen digu gainera. Guzti honek, hitz gutxitan esanda, nerbio-sistema zentralaren eta periferikoaren hipersentsibilitatea dakar gainera.

Azken urte hauetan egindako ikerketetan agertzen denez, badaude zaratarekiko sentsibilitate berezia duten pertsonak.

Hauek zarataren aurrean biolentziaz erreakzionatzen dute, beste organismo batzuek alergia eta erreakzio alerjikoak izateko joera duten bezala.

Denongan zaratak eragin han-

dia badu ere, hauengan are gehiago, batez ere gaueko zaratak, egun guztian zehar beste hotsak jasan ondoren; nerbio-sistema pixkanaka ahuldu egiten bait da.

Ibai garbiak, aire osasuntsuak eskatu eta exijitzen ditugu... zergatik ez dugu zarata gutxixeago ere eskatzen? Ez dugu ixiltasuna eskatzen, hori ezinezkoa bait da; bakarrik zarata gutxiago. Agian, hemendik urte batzuetara, naturaren ondasunak (ur gardenak, aire kutsatu gabekoa, ixiltasuna...) gaur egun preziatzen ez ditugunak, berriro ere estima ezinezko ondasunak bilakatzea gertatuko da.

*Eukeni Olabarrieta  
Arantxa Lizaso*

### GABINETE MEDIKOA

**Medikuntza  
Digestibidea  
Endoskopia  
Ekografia  
Analiak**

Ferrerias, 1.  
Tfnoa: 79 15 08

### Impi gozoak

Gosariak eta gozokiak

Zarugalde, 8  
Tfnoa: 79 63 34

### TXOKO TABERNA

Gure berezitasunak  
pintxo eta mokau  
gozoak

### Memesa

**Arrasate**  
79 42 22

### Agirre Miota Gestoria

Zerga deklarazioak  
Erdiko kale 28, 2.  
Tfnoa: 79 34 33

### KLINIKA DENTALA

**Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
(Umeentzat ere bai)**

Iturriotz kalea, 7 Tfnoa: 79 73 88

### ARRASATE PRESS

astero zuekin

## ETXEBIZITZAK

- Pisua hartu nahi da errentan. Tfnoa. 799525 (gauzez).
- Neska ingelesak pisuan bizi nahi luke beste batzuekin Arrasaten. Tfnoa. 762575 (Bergara). Goizez deitu (DENISE).
- Neskak pisuak nahi luke Arrasate edo inguruetan beste batzuekin bizitzeko. Tfnoa. 781189 (gauzez).
- Merkataritzarako lokala hartu nahi da errentan. Nahiago herriaren erdigunean. 100 m2. Tfnoak. 794569—798821.
- Merkataritzarako lokala eskualdatu nahi da. 38m2. Uribe Auzoan. Tfnoa. 790870.
- Merkataritzarako lokala eskualdatu nahi da Uribe Auzoan. Tfnoa. 798637.
- Pisua salgai Uribe Auzoan. 4 logela, egongela, 2 bainugela, garajea eta trasteategia. Tfnoa. 793612.
- Erdiko kalean pisua salgai (9—2º). 3 logela, sukaldea, bainugela. Tfnoa. 796765.
- Merkataritzako lokala saldu edo errentan eman nahi da. 37m2; Kalealdea, 13. Tfnoa. 798350
- Saldu edo errentan eman nahi da 1. pisua, herriaren erdialdean, apartamentu, estudio, bulego, kontsultategi...izateko prestatua. (eta atikoa, etxe berean). Tfnoa. 795125
- Pisua salgai, Kaltzariekin, Makatzenan (5—4º A) Tfnoa. 799357

## LANA

- Tolosako Udalak Artxibari lanpostua lehiaketa oposizio bidez betetzeko deial-

dia egin du. Deialdiaren oinarriak 89.01.23 ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dira. Eskariak aurkezteko epea Otsailaren 27an bukatzen da.

- Eibarko REDIMA enpresak Administrari bat kontratatu nahi du. Interesatuak Eibarko 396 posta-kutxara ( Ref: INEM - EIBAR 6.988 ) idazki bat bidali behar dute, eskuz idatzita, bere " Curriculum vitae ", argazkia, helbidea eta telefonoarekin.
- Zarauzko Udalak ERDI MAILAKO TEKNIKARI lanpostu bat ( Aparejadore, Arkitekto Tekniko, Obra Publikoetako Laguntzaile edo Injineru Teknikoa ) betetzeko deialdia egin du. Oinarriak Udaletxeko Idazkaritzan aurkitzen dira, interesatu guztien esku.
- IMI Programak ondoko lanpostu hauek bete nahi ditu:
  - \* 5 monitore, Bilbo, Gazteiz eta Donostiako IMI zentruetarako.
  - \* Teknikari bat, Promozio-Sailerako.
  - \* Zentru-koordinatzaile bi.
  - \* Administrari bat, Promozio - Sailerako.
 Interesatuak honako helbide honetara bidali behar dute bere curriculum vitae: IMI Programa. Gran Via, 2-4. 48001 BILBO.
- ZURE DENDA enpresak ondoko lanpostu hauek bete nahi ditu:
  - \* Parket eta kortxo jartzaile bat.
  - \* Ate-jartzaile bat.
  - \* Pintoreak.
 Interesatuak dei ( 943 ) 60 13 51 telefonora.
- Deba Beheko enpresa batek Marketing Saileko Zuzendari-postua bete nahi du.

Interesatuak, 57. postakutxara bidali behar dute beren curriculum eskuz idatzita, bertan 17 DM erreferentzia jarritz.

- Deba Garaiko enpresa batek 8 lanpostu bete nahi ditu. Interesatuak Arrasateko INEMeko bulegoetara (Garaibai, 3) joan behar dute.
- Euskal Herriko Komunitate Autonomoko Administrazioak Goimailako Teknikariak behar ditu ondoko lanpostu hauek betetzeko: Zerbitzu-Ikustatzailea; Giza-Baliabideak; Informazio Sanitarioa; Planifikazio Ekonomikoa; Gaixoen Atentzio-Zerbitzua. Eskari-orriak eta gainerako informazioa: H.A.E.E.ren Egoitza, Unibertsitate Zaharra, Oñati.
- Hydraulix Ring, S.L.ak bi lanpostu hauek bete nahi ditu Elgoibarren: Fabrikazio Teknikaria eta montadorea. Interesatuak deitu 74 21 30 telefonora, Solano Jau-nagatik galdetuz.
- Igeltseroak behar dira: autonomo kontratatuak. Soldata elkarrekin erabakitzeke. Interesatuak deitu 71 74 61 tfnora.
- Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko neska bat behar da. Tfnoa: 79 35 44.

## SALEROSKETAK

- Peugeot 205 SR salgai. 86ko Uztailekoa, Tfnoa: 945-44 53 93 Ana.
- Eskiak saltzen ditut prezio onean. Deitu 79 09 00 (Jose Felix)
- Ia estranaturik gabeko larruzko jaka saltzen dut. Peio. Tfnoa.: 79 26 62
- Bigarren eskuko kotxe bat erosi nahi nuke. R-4, R-5 edo antzekoa. Juan Luis 79.71.64



### ARRASATEN HILAK

Juan Manuel Azkoaga 89 urte

Urtarrilak 27an

Esteban Azpilikueta Garcia 25 urte

Otsailak 7an

Julio Ausin Hidalgo 77 urte

Otsailak 5an

Agustina Telleria 89 urte

Otsailak 7an

Patricio San Julian

Otsailak 8an

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA  
TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA**

**TESTUA:** \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

Zehar kale estalia 1, 1b 20.500 ARRASATE Tfnoa 797164

Aste honetako kolaborazioak aski ezberdinak ditugu.

Ipuintxoa, honelako lanetan sariren bat irabazia duen Ertaintetako ikasle batena. Poematxoa, berriz, gure artean ibiltzen diren poeta ezkutu horietako batena.

### Eguzki-printza galdua

Irten nintzenean ez nuen sinisten ikusten ari nintzena. Nire azken berrogei urteak etxe txiki hartan nituen igaroak eta orain mendi gailurretik urrunean ikustean, aske sentitu nintzen lehenengo aldiz. Zoroetxea ez zen nire bizitza!

Arnasa hartu nuen, mendiko haizeak nire bihotza garbitzen zuela sentituz. Txoriak txioka zebiltzan, zerua zeharkatzen. Pinuak haizearen indarraz mugitzen ziren eta ongi etorria ematen zidaten beren mundura. Iadanik ez nituen ikusten zuriz jantzitako gizon handiak; ez nuen osagaien kiratsa usaintzen; ezta nire inguruan zoroak.

Nola irten nintzen? Ez dakit. Bapatean, hiltzear sentitu nintzen han. Argi bat ikusi eta harantz abiatu nintzen. Eta konturatu nintzenerako, hemen nengoen. Eguzkiak, urte guzti hauetan hertsirik egon zen itxaropen-kutxa ireki zidan. Aske nintzen!

Goitik behera begiratu nion neure buruari. Jantzi berde hura... eta zenbakia: 271. Behorrek bezalaxe, zenbatuak. 271 amets, 271 malko, 271 itxaropen...

Hain liluraturik nengoen ez berreskuratu berri nuen munduarekin, ez nituen medikuak niregana hurbiltzen entzun. Bapatean, nire besoei oratu zieten eskuek beldurrean eta bakardadean murgildu ninduten. Garrasika eta negarrez zoroetxera itzuli nintzen. Berrero ere zoroak nire inguruan, osagaien kiratsa eta zuriz jantzitako gizon handiak.

Baina ez kut inoiz ere ahaztuko egun hartako sentimendua: nire bihotzaren askapena eta benetako mundua zer den jakitea. Erpin batean eserita nago, harrez gero. "Gixajoa, ez da inoiz irtengo" diote medikuek. "Agian egun batean, agian..." dio nire barrenak.

*Rakel Arroyo, 15 urte*

### Maitaleen norabegirak

Berbetan ari denean  
paisaia bailitzen begiratzen diot.

Berbetan ari naizenean  
paisaiari begiratzen dio.

*Jon Iriberry*

## Jaialdia Aretxabaletan: PANTXOA eta PEIO



Eguna: Otsailak 11, Larunbata

Ordua: 11ak

Aretxabaletako kirol etxean

Prezioa: 300 pta.

Antolatzailea: BEINKE

■ **Hitzetik hortzera.** Ezustean harrapatu ninduen, Lasarteko Krossa ikusteko asmoz eragin bait nion telebistaren botoiari, baina gustora gelditu nintzen Joserra Gartzia zuzentzen duen programan ikusita-koarekin. Bertsolaritza du gai nagusi eta bitarteko urriak izan arren, bertsolaritzari telebistan inoiz gertatu zaion gauzarik onena dela esango nuke. Hala ere, ahots desberdinak, dekoratu argiagoak eta plano laburragoak ez litzazkioke gaizki etorriko. Badakizue, bertsolaritzak telebistan duen gelditasun hori apurtzeko. Deba Garaiko bertsozaleok, bada, zita duzue ETBn hilabete guztietako azken igandeetan, eguerdiko 11etan, ordubetez. Ez litzateke hobe izango hilean birritan ordu erdiz? Ordua desegokia iruditzen bazaizue, gertu izan bideoa.

■ **Lasarteko Krossa.** Nesken larterketa polita izan bazen, gizonen-koen amaiera, Lasarten inoiz eman den ederrenetarikoa, zaletasuna sortzen duten horietakoa. ETBkoen lana, ondo egindakoa.

■ **Irratien audientzia.** Egun hauetan bi etxek -Estudio General de Medios eta CIESe- egindako inkestek emaitzak argitaratu dira. Hona hemen datu batzuk: CIESen arabera, Euskadiko Komunitate Autonomoan bakarrik, Euskadi Irratiak 47.000 entzule izan ditu batz besterik egunero, 1988 urtean, Loiolak 34.000 eta Arratek 14.000. EGMren esanetan, bestalde, 1988ko Urrian eta Azaroan Arratek 9.000 entzule irabazi dituen artean, Loiolako Herri Irratiak 12.000 galdu ditu eta Euskadi Irratiak 1.000. Nola ulertu behar dira datu hauek eta zein da duten sinesgarritasuna? Auskalo.

■ **Ordu Txikiak.** Zorioneko inkestek diotenez, gaueko orduak izan dira motelenak audientzia mailan Euskadi Irratian. Egoera horri erre-medio ipini guran edo, Dani Arizala andoaindarra jarri dute gaueko entzule bakarti eta malenkoniatsuak animatzeko. Oraingoan pottokak dagokien lekuan utzi ditu eta gustora dabilela dirudi. Gautxoria bazara, azterketak prestatzen bazabiltza edota Zentroan edo taxi batean bazau- de zain, "Ordu Txikiak" zeurea duzu. Gauero Euskadi Irratian, goize-ko ordubatek hirurak bitartean.

*Joxe Aranzabal*



## gusto baduzu

■ **"Dr. Livingstone, supongo".** Larunbatean, hilak 11, 15,35ean (ETB 2). Abenturazalea bazara, hauxe da zure programa. Roge Blasco zuzendariak abenturari, bidaiari, mendizaleak etab. ekartzen ditu bere programara. Pertsonai hauekin solasaldiak, munduko leku bitxiei buruzko erreportaiekin (oihan amazoni- rra, Himalaya edo desagertze- ar da- goen tribu baten ohiturak, esaterako) tartekatzen dira.

■ **Teletxip.** Asteazkenean, hilak 15, 19,05ean. Informatikaren zabal- kunderako ordu erdiko programa as- tekaria da. Honako programa hau, adin guztietako ikustentzulegoari dago zuzendurik, bere barruko ata- len artean, bai gaztetxoentzat bai ikasleentzat eskeinitakoak ere bait daude. Arduraduna: Fermin Rota- etxe.

■ **"Aurpegi biko emakumea"** ("Two faced woman"). New Yorkeko editore komiko bat, ski irakaslea eta oso erakargarria ez den bere emaztea- rengandik urruntzen hasten denean, emazteak ofentsiba prestatzen du. Ahizpa bizki eder eta sofistikatu bat asmatu eta borroka gaueko klubetako zirkuitora eramaten du. Zuzendaria: George Cukor; Antzez- leak: Greta Garbo, Melvyn Douglas, Constance Bennett.

### OSTADAR IRRATIA (102 F.M)

**Urtarrilak 20, Ostirala**  
3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)  
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasi-  
koa)

**Urtarrilak 25, Azteazkena**  
4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)  
**Urtarrilak 26, Osteguna**  
1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako graba-  
ketak).

### SORGINA IRRATIA (105 F.M)

Tfnoa: 79 82 68


**Urtarrilak 20, Ostirala**  
7-9 KK Profe puag  
7-9 Piramyd  
10-11,30 Fermin Crosby-ren ordua  
11,30-12,30 Beltza blues klub  
**Urtarrilak 21, Larunbata**  
8-9 Onda katxondoa  
9-11 Dana ondo dabil  
11-1 Banpiroak  
**Urtarrilak 22, Igandea**  
10-11 Puuagg!!! (Musika eta kon tra-  
informazioa)  
**Urtarrilak 24, Asteartea**  
7-8 A ze hiru hanka aulki batentzat!  
8-10 Pufa kalufa  
10-11 Bai zera!  
11-12 Irrintzi  
**Urtarrilak 26, Osteguna**  
1-2 Gaurko bazkaria  
7-8 Exterminioa helburu  
8-9 Mara-mara (Emakumeen  
Asanblada)  
9-10 Itxungitako dragoie (AED)  
10-11 Amen Jesus!  
11-12 Gau erdiko klasikoak

3	-		+		/		=	2
+	■	x	■	-	■	+	■	
	-	6	+		/		=	2
-	■	-	■	x	■	-	■	
	+		/	3	x		=	2
/	■	x	■	-	■	-	■	
	-		+		/	5	=	2
=	■	=	■	=	■	=	■	=
2		2		2		2	=	1

## Aritgrama

bete ezazu laukia

## Jeroglifikoa



Nor etorri da?

Soluzioak: 19. orrialdean.

P. Mokordo

# Horoskopoa



## ARIES

(Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra)

Hori lortu ahal izateko, zer egin behar duzun badakizu. Ez egon besteek esaten dutenaren zain, erabakia zeurea da baka-rik. Ondo bideratuta zaude, segi aurrera!



## TAURUS

(Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra)

Irtisi zaizu zure trebetasunak adierazte-ko momentua. Orain ez baduzu aukera aprobetxatzen, luzaroan itxoin beharko duzu. Ondo pentsatu.



## GEMINI

(Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 21era)

Lanak agobiatuta zauzka. Ez hartu serioegi nagusiek agintzen dizutena, ez du merezi. Zure kasa ibili eta gorputzak eskatzen dizunari ekin.



## CANCER

(Ekainaren 22etik  
Uztailaren 22ra)

Aldaketa egoeran zaudenez, komeni zaizuna ondo aztertu beharko duzu, baina lagunei eritzia eskatu beharko zenieke, ondo ezagutzen zaituzte eta.



## LEO

(Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra)


Orain arte egon zaren hodeitik jeitsi beharko duzu. Mozorroa kendu eta jarrai, ezer pasatu ez balitz bezala, zure betebeharrak eginez.



## VIRGO

(Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra)

Kolore orlegiak suerte ona ekarriko dizu. Erabil ezazu, ba, ahal dituzun gauza berde guztiak. Dena den, itxaropen koloreaz inguratzak ezin dizu kalterik egin.



## LIBRA

(Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra)

Zertan zabilta aspaldi honetan? Besteen bizitzan sartzeak ez dizu ezer onik ekarriko, batez ere zirikatzen jarraitzen baduzu. Zintzo jokatu eta ez eman lan gehiegi gibelari.



## SCORPIO

(Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra)

Gabeko irteerak murriztu behar dituzu, osasuna ez duzu gehiegikerietarako eta. Aprobetxa dezakezu bolada hau lo gehiago egiteko eta amets egiteko, zergatik ez.



## SAGITARIUS

(Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era)

Pertsona horrekin jolasten ari zara, baina ez pentsa hain errez engainatuko duzunik. Agian bera zure jokuaz jabetu da eta jokoz kanpo utzi nahi zaitu. Erne ibili.



## CAPRICORN

(Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra)

Zure lagun batek laguntza eskatuko dizu. Emaiozu pentsatu gabe, benetan behar du eta. Aholkatzeko joera ahazten baduzu hobeto biontzat.



## AQUARIUS

(Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra)

Zure aldamenean dagoen norbaitek zutaz asko pentsatzen du. Oraindik ez bazara konturatu, laster ahaleginak egingo ditu zure atenzioa deitzeko.



## PISCIS

(Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra)

Bi aldiz pentsatu beharko zenuke edozein gauza egin baino lehen. Aste honetan astroak ez daude zure alde eta zure bizimodu ahalik eta gutxien aldatu. Ez zure burua nahaztu.

**☞ Zenbatekoa den AU-KEA-ren aurrekontua?**

Arrasateko Udalaren Kirol Erakunde Autonomoak (AU-KEA), Udal Plenoari aurkeztu dion proposamenaren arabera, onartzen bada, bere aurrekontua 94.750.000 pezetakoa izango da 1.989 urtean.

Gastuetan Pertsonalari 38.400.000 pezeta dagokio, funtzionamendu gastuei (garbiketa, argia eta abar) 42.725.000; eta 12.600.000 pezeta Elkarte eta Ekintzetarako diru laguntzak dira.

Sarreretan, abonatuaren kuoten bitartez 27.200.000 pezeta lortuko da; 2.900.000 pezeta egunero-ko txartelen bitartez, instalazioen alokairuen bitartez, 11.950.000

eta Udalak ordainduko duen defizita 50.700.000 pezetakoa izango da.

Esan bezala, Udal Plenoak onartzen badu.

**☞ Zenbat erabiltzen den Musakolako Kiroldegia?**

AUKEAk, gerora Iturripeko Kirol instalazioen eta beste zenbaiten ardura har badezake ere, oraingoz Atxabalpeko Futbol Zelaiak eta Musakolako Kiroldegia gestionatzen ditu.

Azken honetan 9.400 abonatu (bazkide) daude, zeinetarik 1.100 banakakoak dira, 8.000 familierak eta 300 jubilatua.

Neguan eguneko 1.200 pertsonak erabiltzen ditu instalazio hauek eta udan 2.500 pertsonak.

**☞ Zeintzuk erabiltzen duten Musakolako Kiroldegia?**

1) Heziketa Fisikoa egiteko, 8 Ikastetxetako O.H.O.ko 1.400 haurrek, 6 monitorez baliatuz.

2) Igeriketa egiteko, ikastetxetako 250 haurrek, 2 monitorez baliaturik.

3) Institutoko 800 ikaslek, Heziketa Fisikoko klaseak emateko.

4) Santa Agedako Hospital Sikiatrikoko 40 pertsonak.

5) Gimnasia eta Judoan 255 pertsonak.

6) 15 Kirol Elkartetako 600 partaidek, dagozkien kirolean.

7) Zenbait lehiaketetan (Saskibaloia, pala, tenis eta abar) 2.000 pertsonak.

**PROMOCIONES MARKULETE, S.A.**

**NABE INDUSTRIALEN  
SALMENTA**

**Mendi - Etxebarrin**

200 m<sup>2</sup> tatik aurrera  
sarbide zabalekin

- \* Plantartekoa eta zubi-garabia, aukeran.
- \* Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia.
- \* Zerbitzuak: saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta:

Tfnoak: Gasteiz 28 67 60

27 79 60

Arrasate 79 97 95